

Dena ez da izango larrua



ARITZ GALARRAGA

Neguan zehar landutako giharrek ere erakutsi beharko ditugu, eta etxeko terrazan eguzki txikitari ondutako azal beltzarana, dena ez da izango, ba, larrua jotzea, dena ez da izango, ba, larrua jotzea. Jan beharko ditugu hondartzaraino iristeko auto ilara amaigabeak, eta zapaldu beharko ditugu hondarretan luze etzanda dauden udatiar baketsuak, dena ez da izango, ba, larrua jotzea, dena ez da izango, ba, larrua jotzea. Izozkiren bat ere miazkatu beharko dugu, irrikaz irentsi gofreren bat, boikoteatu beharko dugu azken asteotako dieta zorrotza, dena ez da izango, ba, larrua jotzea, dena ez da izango, ba, larrua jotzea.

Libururen bat ere irakurri beharko dugu, kontxo, ez kezka, izan dadila arina, freskoa, zoriontsua, uda bezala, edo behintzat libururen bat irakurtzen ariko bagina bezala egin beharko da, ondo ematen baitu, zer esanik ez argazkietan, dena ez da izango, ba, larrua jotzea, dena ez da izango, ba, larrua jotzea. Kontzerturen batera ere joan beharko gara, hori beti baita samurragoa, egon, entzun, edo entzungo bagenu bezala egin, eta kultura laguntzen ari gara, eskuan izango dugun tragoaren bidez besterik ez bada, dena ez da izango, ba, larrua jotzea, dena ez da izango, ba, larrua jotzea. Eta herriagatik ere mobilizatu beharko da, noski, nola ez, uda izan arren, ahal bada hondartzan egiten diren elkarretaratze horietako batean, dena ez da izango, ba, larrua jotzea, dena ez da izango, ba, larrua jotzea.

Eta batez ere, guztiaren gainetik, itzuleraren, egunerokoaren, neguaren ideia betiko uxatzen saiatu beharko gara, uda eternalaren ametsa bizitzen, bizitza betiereko uda bat balitz bezala, kezkarik gabe, arazorik gabe, trabarik gabe, betiko gazte, zergatik ez nerabe, jauzi handiaren zain beti ere, kasu honetan kolpe, dena ez da izango, ba, larrua jotzea, dena ez da izango, ba, larrua jotzea. ●



“MADRILERA INDARTSU GOAZ, BAINA KEZKATUTA ERE BAI”

A. ZULUETA ETA S. AGIRRE, 13/13 MAKROEPAIKETAKO AUZIPETUAK

Arantza Zulueta, Jon Enparantza, Naia Zuriarrain, Julen Zelarain, Iker Sarriegi, Saioa Agirre, Nerea Redondo eta Juan Mari Jauregi dira Espainiako Auzitegi Nazionalak uztailaren 12tik aitzina epaituko dituenak, euskal presoek eskubideen alde lanean arituak. Orotara 77 espetxe urte eskatzen ditu fiskaltzak. Epaiketa salatzeke Bilbon egin manifestazioan, Zulueta eta Agirrek hitz egin zuten. “Zuek gabe, ezinezkoa izango zen gu Madrilera hain indartsu joatea. Indartsu goaz, baina kezkatuta ere bai, Auzitegi Nazionala ezagutzen dugulako eta badugulako han erabiltzen dituzten trikimailuen berri”. **2021/07/10**

